

idazkeran, eta abenduaren 17ko 69871991 Dekretuan sedatutako suposizioez aparte, onuradunak haren bete-beharrak ez betetzea, gastuak behar bezala ez justifikatzea, eskabidean azaldu ez bezalako aplikazioa egitea, edo, oro har, agindu honetan ezarritako baldintzaren bat ez betetzea, diru laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du, eta jasotako dirua Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar izatea.«

AZKEN XEDAPENAK

Lebenengoa.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean agindu hau.

Bigarrena.— Agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi errekursoa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 16a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

cienda General del País Vasco y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, el incumplimiento de las obligaciones del beneficiario, la falta de justificación de los gastos, una aplicación diferente a la señalada en la solicitud y/o, en general, el incumplimiento de alguno de los requisitos exigidos en la presente Orden, darán lugar a la pérdida del derecho a las subvenciones, debiendo, el beneficiario de la ayuda, reintegrar las cantidades obtenidas con los intereses legales a la Tesorería General del País Vasco.«

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— La presente Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.— Contra la presente Orden podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de publicación de la presente Orden.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de abril de 2003.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA

Zk-2519

EBAZPENA, 2003ko martxoaren 31koa, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko lehendakariarena, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak 2002ko abenduaren 16an eta 2003ko otsailaren 10ean egindako Osoko Bilkuretan hartutako Erabakia argitaratzea xedatzen duena.

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak 2002ko abenduaren 16an eta 2003ko otsailaren 10ean egindako Osoko Bilkuretan erabaki bat hartu zuelarik, eta horri beharrezko publikotasuna emateko, maiatzaren 11ko 213/1999 Dekretuak, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua arautzen duenak, 10 d) artikuluan ematen dion eskumenaz baliatuz

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ondorengo erabakiaren testua argitaratzea:

CONSEJO SUPERIOR DE COOPERATIVAS DE EUSKADI

Nº-2519

RESOLUCIÓN de 31 de marzo de 2003, del Presidente del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, por la que se dispone la publicación del Acuerdo adoptado por el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi en los Plenos celebrados el 16 de diciembre de 2002 y 10 de febrero de 2003, que se indica.

Habiéndose adoptado un acuerdo por el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi en sus sesiones plenarias celebradas el 16 de diciembre de 2002 y 10 de febrero de 2003, y a efectos de darle la publicidad debida, en virtud de la competencia atribuida por el artículo 10 d) del Decreto 213/1999, de 11 de mayo, por el que se regula el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi,

RESUELVO:

Artículo único.— Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el texto del siguiente acuerdo:

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren Antolaketa eta Jarduera Araudiaren 7., 10., 23. eta 42. artikuluak aldatzea, 2002ko abenduaren 16ko Aktaren Eranskinen agertzen diren bezala geratuko direlarik idatzita aldaketaren ondoren.

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren lehendakaria,
JESÚS ALFREDO ISPIZUA ZUAZUA.

**EUSKADIKO KOOPERATIBEN
GOREN KONTSEILUAREN
ANTOLAKETA ETA JARDUERA
ARAUDIAREN ALDAKETA**

Leben artikulua.— Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren Antolaketa eta Jarduera Araudiaren 7. artikuluko Bat puntuo b) letra berriro idatzi da eta honela geratu da azkenean:

b) Kooperatiben baitako gatazken konponbide alternatibo gisa, adiskidetzea eta bitartekaritza bultzatzea.

Bigarren artikulua.— Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren Antolaketa eta Jarduera Araudiaren 10. artikuluko Bost puntu berriro idatzi da eta honela geratu da azkenean:

Bost.— Kontseilarien kargua lau urterako izango da, 213/1999 Dekretuak 6. artikuluan ezartzen duen bezala, eta agintealdia bukatzen den aldi berean egingo da berriztatzea. Dena den, aipaturiko artikuluan 3. puntuaren arabera garaiz kanpo izendatutako kontseilarien berriztapenak ohiko berriztapenekin batera egingo dira, eta horien agintealdia ere gainerako kontseilariei geratzen zaien denboraldirako izango da indarrean.

Hirugarren artikulua.— Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren Antolaketa eta Jarduera Araudiaren 23. artikulua berriro idatzi da eta honela geratu da azkenean:

Bat.— Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak legez esleitura dituen eginkizunak garatu eta betetzeko Batzorde iraunkorrak erabil ditzake, Osoko Bilkurak eskuordeturiko ahalmenekin. Dena den, azken honi dagokio egindakoaren kontrola.

Bi.— Osoko Bilkurak izendaturiko kontseilariek osatuko dituzte Batzordeak, bakoitzean bermatu behar delarik 213/1999 Dekretuak 5. artikuluan aipatzen dituen hiru estamentuetako kontseilariaiak egotea, Euskadiko Kooperatiba Federazioek izendaturikoa gehienagoa izanez. Salbuespen gisa, Batzorde hauetan eskubide osoko kide izan daitezke ospe nabarmeneko beste batzuk, Osoko Bilkurak aho batez izendatuak. Halaber, bilkuretarra joan ahal izango dira, kasu jakin batzuetan eta ez iraunkortasunez, Batzordearen beraren iritziz, egokiak direnak, bere esku dauden gaietan lagungarri edo osagarri izan daitezkelako.

Modificar los artículos 7, 10, 23 y 42 del Reglamento de Organización y Funcionamiento del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, quedando definitivamente redactados como figuran en el Anexo del Acta de 16 de diciembre de 2002.

El Presidente del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi,
JESÚS ALFREDO ISPIZUA ZUAZUA.

**MODIFICACIÓN DEL REGLAMENTO DE
ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DEL
CONSEJO SUPERIOR DE COOPERATIVAS
DE EUSKADI**

Artículo primero.— Se da una nueva redacción a la letra b) del punto Uno del artículo 7 del Reglamento de Organización y Funcionamiento del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi que queda redactado de la manera siguiente:

b) Fomentar la conciliación y mediación como fórmulas de resolución alternativa de los conflictos en el seno de las cooperativas.

Artículo segundo.— Se da una nueva redacción al punto Cinco del artículo 10 del Reglamento de Organización y Funcionamiento del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi que queda redactado de la manera siguiente:

Cinco.— La duración del cargo de los consejeros será de cuatro años, tal y como se prevé en el artículo 6 del Decreto 213/1999, y su renovación será simultánea al agotarse el periodo de mandato. En todo caso, las renovaciones de los consejeros que hayan sido designados de forma extemporánea de conformidad con el punto 3 del referido artículo, se harán coincidir con las renovaciones ordinarias, estando vigente por tanto el mandato hasta el periodo que restare al resto de los consejeros.

Artículo tercero.— Se da una nueva redacción al artículo 23 del Reglamento de Organización y Funcionamiento del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi que queda redactado de la manera siguiente:

Uno.— El Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi podrá desarrollar y ejecutar funciones que legalmente tiene atribuidas mediante Comisiones de carácter permanente con facultades delegadas del Pleno. A este último le corresponde, en todo caso, el control de lo realizado.

Dos.— Las Comisiones estarán constituidas por los Consejeros que nombre el Pleno, garantizándose la presencia en cada una de ellas de consejeros procedentes de los tres estamentos a que se refiere el artículo 5 del Decreto 213/1999, con mayoría de los designados por las Federaciones de Cooperativas. Excepcionalmente podrán ser miembros de pleno derecho de estas Comisiones terceros de reconocido prestigio designados por unanimidad por el Pleno. Así mismo, podrán asistir a sus sesiones, en supuestos concretos y sin carácter de permanencia, las personas que entienda la propia Comisión sean adecuadas al objeto de apoyo o complemento para las cuestiones de su competencia.

Batzordeek lan-taldeak sortu ahal izango dituzte, beren edo beste Batzorde batzuetako kontseilariez edo Goren Kontseiluko ez den jendez osatuak, beren lanerako laguntza edo osagarri gisa.

Hiru.— Batzordeek Idazkari Orokor Teknikoaren —berorietan idazkari-lanak egingo ditu— eta Abokatu Aholkulariaren laguntza izango dute.

Lau.— Batzordeetako kide eta ordezkari lehendakari bat izango da, Goren Kontseiluko kontseilaria, bere baitan aukeratuko dena isilpeko botazioan balioz eman-dako botoen kopuru handienaz.

Batzorde bakoitzak bere barne-jarduerarako arauak ezarriko ditu, ondorengoak betez betiere:

a) Batzorde bakoitzeko lehendakariari dagokio bilerretara dei egitea, Gai Zerrenda ezarriz.

b) Batzordea balioz eratzeko, osatzen duten kontseilarien gehiengoak bildu behar du. Norberak joan behar du bertara.

c) Akordioak bildutakoenean erdien botoz hartuko dira, abstentzioak kanpo utzita, kasu jakinetarako gehiengo bereziak eska daitezkeelarik. Berdinketa dagoenean, lehendakariaren botoak erabakiko du.

d) Batzorde bakoitzaren akordioak dagokien Aktan jasoko dira; akta Idazkari Orokor Teknikoak egingo du, eta hurrengo bilkuran edo bilkura berean onartu ondo-ren, berak izenpetuko du, batzordeko lehendakariak ontzat emanda. Dena den, urtero Akta Liburu bat formalizatuko da ekitaldi horretako akta guztiak jasota, eta Kontseiluko egoitzan geratuko da gordeta.

e) Batzordeek, dagozkien eginkizunak betetzeko, kontseilarri bat edo gehiago edo, hala balegokio, Kontseiluko langile teknikoak ahaldundu ditzakete, era mankomunatu edo solidarioan.

Laugarren artikulua.— Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren Antolaketa eta Jarduera Araudian beste Kapitulu bat sartu da, VIII.a, eta honela geratu da idatzita:

VIII. KAPITULUA KONTSULTAK

42. artikulua. Konsultak.

Bat.— Kooperatibek eta kooperatiba-elkarretek, kooperatibetako bazkideek, baita Herri Administrazioek eta hauentzat eginkizunak bete edo zerbitzuak ematen dituztenek ere, konsultak egin ditzakete Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluan, kooperatiba-izaera-ko printzipio, arau, ohitura eta usadioen interpretazio eta aplikazioari buruz. Erregistro-gaiei buruzkoak Euskadiko Kooperatiben Erregistroan egin behar dira.

Las Comisiones podrán crear grupos de trabajo integrados por Consejeros pertenecientes a las mismas, o a otras Comisiones, y por personas ajenas al Consejo Superior, de apoyo o complemento a su labor.

Tres.— Las Comisiones estarán asistidas por el Secretario General Técnico, quien actuará como Secretario de las mismas, y por el Letrado Asesor.

Cuatro.— Las Comisiones estarán formadas y representadas por un Presidente consejero del Consejo Superior, elegido en su seno por el mayor número de votos válidamente emitidos en votación secreta.

Cada Comisión establecerá sus normas de funcionamiento interno acatando las siguientes:

a) Corresponde al Presidente de cada Comisión convocar sus reuniones estableciendo el Orden del Día.

b) Las Comisiones estarán válidamente constituidas cuando concurran la mayoría de sus miembros. La asistencia será personal.

c) Los acuerdos se adoptarán por la mitad de los votos de los asistentes, excluidas abstenciones, sin perjuicio de que se establezcan mayorías cualificadas para casos concretos. En caso de empate el voto del Presidente será dirimiente.

d) Los acuerdos de cada Comisión serán consignados en el Acta correspondiente, redactada por el Secretario General Técnico, quien la firmará junto con el Visto Bueno del Presidente de la misma, una vez aprobada en la sesión posterior o en la misma. En cualquier caso, se formalizará un Libro de Actas anualmente que recoja todas las de ese ejercicio y quedará depositado en la sede del Consejo.

e) Las Comisiones podrán conferir los apoderamientos que precise la ejecución de las funciones que tenga asignadas, con carácter mancomunado o solidario, a favor de uno o varios de sus miembros o, en su caso, del personal técnico del Consejo.

Artículo cuarto.— Se introduce un nuevo Capítulo, el VIII, en Reglamento de Organización y Funcionamiento del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi con la siguiente redacción:

CAPÍTULO VIII CONSULTAS

Artículo 42.— Consultas.

Uno.— Las sociedades cooperativas y las Asociaciones cooperativas, los socios de las cooperativas, así como las Administraciones públicas y los profesionales que realicen funciones o servicios ante aquellas, podrán plantear consultas ante el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi sobre la interpretación y aplicación de principios, normas, costumbres y usos de naturaleza cooperativa. Aquellas que versen sobre materia registral se deberán formular ante el Registro de Cooperativas de Euskadi.

Bi.— Kontsultak Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari zuzendu behar zaizkio idatziz eta honek 30 eguneko epean erantzongo du eskariaren berri iza-ten duenetik aurrera.

Hiru.— Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak emandako erantzunek informazio-izaera izango dute, eta ez dute ez eskubiderik ez eskubide-itxaropenik sortuko ez eskatzaileen ez beste inoren alde. Halaber, Kontseiluaren erantzunaren aurka ez dago errekurtsorik jar-tzerik.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Antolaketa eta Jarduera Araudiaren aldaketa hau EHAAAn argitaratu ondorengo lehen egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko otsailaren 10a.

Justizia Administrazioa

BILBOKO LEHEN AUZIALDIKO 9 ZENBAKIKO EPAITEGIA

Zk-2520

EDIKTUA, 637/02 ordainketa-etenduraren prozedura-ren ondoriozkoa.

Alberto Diez Tejedor-ek, Bilboko Lehen Auzialdiko 9 zk.ko Epaitegiko magistratu epaileak honako hau

JAKINARAZTEN DU:

Kitatzealdian den Steuler Ibérica, S.A. entitatearen ordainketa-etenduraren 637/02 zk.ko expedienteean emandako Ebazpenaren bitartez, Hartzekodunen Batazar Nagusirako deialdia egitea ebatzi dut, hau da, epaitegi honetako Entzunaldiaren Aretoan, 2003ko maiatzaren 10ean egingo denerako. Aipatu ebazpenaren bitartez, bestalde, eutsi egin zaio behin betiko kaudimen-gabeziari. Hartzekodunak euren kabuz edo notario-ahal-ordea eman zaion lagunaren bitartez ager daitezke; no-tario-ahalordea erakutsi egin beharko da batzarrean.

Bilbon (Bizkaia), bi mila eta hiruko martxoaren ho-geita batean.

IDAZKARIA.

Dos.— Las consultas se formularán mediante escrito dirigido al Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi quien responderá en un plazo de 30 días desde que el Consejo tuvo notificación de la solicitud.

Tres.— Las respuestas que se emitan por el Consejo Superior de Cooperativa de Euskadi tendrán carácter meramente informativo, no originando derechos ni expectativas de derechos a favor de los solicitantes ni de terceros. Así mismo, la respuesta del Consejo no será susceptible de recurso alguno.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

La entrada en vigor de esta modificación del Regla-mento de Organización se producirá al día siguiente de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de febrero de 2003.

Administración de Justicia

JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA N.º 9 DE BILBAO

Nº-2520

EDICTO dimanante del procedimiento de suspensión de pagos n.º 637/02

Don Alberto Diez Tejedor, Magistrado-Juez de Pri-mera Instancia núm. nueve de Bilbao (Bizkaia)

HAGO SABER:

Que en resolución de esta fecha dictada en el ex-pediente de Suspensión de pagos de la entidad Steuler Ibé-rica, S.A. en Liquidación, seguido con el número 637/02, he acordado convocar a Junta General de Acree-dores para el día 30 de mayo de 2003 a las 10:00 ho-ras en la Sala de Audiencias de este Juzgado, habiendo mantenido la calificación de insolvencia definitiva. Los acreedores podrán comparecer personalmente o por me-dio de otra persona a favor la cual se haya otorgado Po-der Notarial Bastante que deberá exhibir en el acto de la celebración de la Junta.

Dado en Bilbao (Bizkaia), a veintiuno de marzo de dos mil tres.

EL SECRETARIO.